

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irrunero

361

Azaroak 15, 2019

Eguraldiak ez du 55. Behobia-Donostia lasterketako giro partegabea izorratu

- 2** Irun atzo Irun Gaur
- 3** Berri laburrak
- 4** Euskaraldia
- 5** FICAB
- 6-7** Tadamun elkarteak
- 8-9** Kirolak: Behobia - Donostia
- 10** Kolaborazioa: Josu Narbarte
- 11** Haurren leihoa
- 12** Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Alaia Gaztelumendi
- 14** Gazte informazioa
- 15** Agenda



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



REF: G61714



REF: G29138



REF: G30118

1919 urteko azaroaren 23an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariaren zenbakia Irun zein eskualdearekin loturiko albisteez beterik dago. Lehen artikulua Andres Isasi musika konpositoreak hirira egindako bisitaren laburpena eskaintzen du. Ostean, kritikarako tartea zabaltzen dute, hirian haragi eskasia eragin duen Nafarroako lege baten inguruan eta osasun zerbitzuaren garestia aipatzen duten artikulua labur batzuek. Guillermo Martinezek eguzkiak uraren desagertzearen duen eraginaren berri ematen duen idatzia sinatzen du aldizkariaren zenbaki honetan, gaiaren inguruan egindako ikerketaren emaitzak argitaratuz. Gaurkotasunezko gaietara itzuliz, azken hilabeteen zehar eskualdeko oilotegiak lapurtu dituzten gaizkileak harrapatu direla, Mendibil auzoko segurtasun falta eta musikaren patrioarekin loturiko albiste sorta irakur daiteke jarraian.

Kirol kronikan, aldiz, futbola da "El Bidasoa" 221. zenbakiko gai nagusia, hala ere, Cross-Country txapelketa aipatzeko tarte txikia eskaintzen zaio. Hortaz gain, Amuteko zelaiaren egoera txarra dela eta Atochara lekualdatu behar izan den partiuaren berri ematen da ere kirol atalaren barnean. Ondoren, aldizkarian hiriko pertsona esanguratsuen bizitza eta ekintzen berri emateko sortuko den zutabe berria aurkezten da. Tartean, Zaragozara salto egin eta bertako neskameek jai egunetako atsedenaldi ordu eta soldata igoeren inguruan egiten dituzten eskakizunei ahotza ematen zaie. Horren ostean, Hondarribiko uretan belaontzi batek arroken kontra izandako istripua eta erreskaterearen albiste irakur daiteke.

Azken aurreko orrialdean, "Notas Municipales" atalean udaleko azken erabakiak jakinarazi ondoren, Hondarribiko hiritar batek bere lagun bati idatzitako gutun baten bitartez Hondarribian azkenaldian izandako aldaketa nagusiak laburbiltzen dira. Jarrain, "Ecos de sociedad" atal ezaguna mantentzen da, baina, eskualdeko gaurkotasunezko gaien inguruan txistean egiten dituen atal berria gehitzen da. Bitartean, Juaristi dokotearen homenaldiaren antolaketa laguntzeko biztanleek egindako ekarpenen zerrenda berreskuratzen da, diru-ekapenak egin dituzten biztanleen izenak eta zenbatekoak biltzeko. "Hace años ..." atalean 1883 urteko albisteak gogora ekartzen dira. Albiste labur, antzokien programazioak eta iragarkiek betetzen dituzte "El Bidasoa" aldizkariako azken lerroak.

Argazkiak:

G61714: Bellas Artes zinema-antzokia, Pikoketa eta Legia kaleen artean kokatuta egon zena, eraitsia izan baino lehen.

G29138: Mendibileko gainean kokatutako "Chocolates Elgorriaga" fabrikaren eraikin nagusiko aurrealdea.

G30118: Berauneko gaineko baratz batean nekazari bikote bat "Angelusean" zehar atsedenaldia egiten 1919 urtea baino lehen ateratako argazkian.

IRUNERO**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



CBA Udal Liburutegitik mundu zabalera

CBA Udal Liburutegian mundu osoko eraikin eta monumentu ezagunak irudikatzen dituzten 3D-tako puzzlekin osatutako erakusketa ikusgai dago. Iñigo Lagarde CBAko ohiko erabiltzaileak utzitako piezak dira eta azaroaren 30era arte bisitatu ahalko dira.

Azaroko hilabetearen zehar CBAko apalak "Munduko arkitekturak" erakuske-

tarekin beteko dira. Guztira 20 maketez osatutako erakusketa da eta mundu osoan zehar kokatutako eraikinak Irundik mugitu gabe bisitatzeko aukera eskaintzen du. Puzzle erako piezak dira, 3D formakoak. Pariseko Eiffel dorrea, New Yorkeko Empire State edo Erromako Koliseoa bezalako eraikin ezagunak ikusi ahalko dira erakusketan. Era berean, erakusketara bilduma

bibliografiko bat gehitzea aurreikusita dago erakusketaren edukiak osatzeko.

Erakusketa azaroaren 30era arte bisitatu ahalko da CBA Udal Liburutegia- ren irekiera-ordutegian, hau da, asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.



Via Irun proiektuaren etorkizuna geroz eta hurbilago

Plan Orokorren bitartez Via Irun proiektuaren irizpide eta helburuak zehaztu dira. Lehen zirriborro baten bitartez trenbide eremua berritzeko lerro orokorrak zehaztu dira. Hain zuzen ere, erabilera mixtoa izango duen eremua izango dela baieztatuta da, hala nola, jarduera ekonomikoa, formakuntza, erresidentzia eremua eta pasabide berde bat, beste gauza batzuen artean, bilduko dituen zonalde batean.

Zirriborroa Hiri Antolaketarako Plan Orokorren (HABO) berrazterketarekin loturik dago, Jose Antonio Santano alkateak azaldu duenez, "dokumentu garrantzitsua da beranduago planoaren gainean marraztu beharko diren oinarriko alderdiak zehazten direlako bertan".

Dokumentuak joan den urtean zehar aurrera eramandako prozesu parte-hartzailean parte hartutako ia 4.500 pertsonen iritzia jasotzen du. Hainbat parte-hartze saioetan, erakusketa bat eta telefono bidezko galdeketen bitartez herritarrek 10 gaien inguruko iritzia emateko aukera izan zuten, oraingo dokumentu honetan biltzen direnak.

Josea Antonio Santano alkateak gogorarazi duenez, erabilera anitzeko eremu bat sortu nahi da, egunerokotasunean bizitza eta ekintzak izango dituen zonaldea sortzeko, jarduera ekonomikoaz gaineraz, erabilera residentziala eta Belaskoenea zein Colon pasealekua elkartuko dituen pasealeku berde batekin.

Era berean, helburuak patrimonioaren aprobetxamendurako bideratzen dira, adibidez,

Aduanaren eraikinaren proiektua eraikina berreskuratzea eta berritzea da, honela, hiriak iraganean trenbidearen munduarekin izandako harremana erabilera publikoko espazio batera hurbildu eta edifizioaren balio arkitektonikoa zaintzearekin batera.

Geltokia eta korridore berdea

Hortaz gain, dokumentuan ADIFen tren-geltokiren etorkizuna zehazten da, horrekin batera, eremu honetan espazio berde bat eraikitze garrantzia azpimarratzeaz gainera. Dokumentuan gainera, Euskotren zerbitzuaren etorkizunean oraindik zabalik dauden irtenbideez hitz egiten da ere, lurperatzea edo eremu berrira lekualdetzeko aukerak planteatzen direlarik. Konexioen gaia lantzen da ere, etorkizunean Soroxarta eta Hegoaldeko Igarobidea konektatuko lituzkeen errepede baten sorrera aipatuz.

Belaskoenea

Aduana eraikina berreskuratzeaz gainera, ekipamenduei dagokionez, Belaskoenea auzoko beste eremuan Euskotren zerbitzuaren geltokia mantentzeaz gainera, auzoa ekipamendu berriarekin osatzea bilatzen da Belaskoenea auzoa eta ingurua gehiago hurbiltzea eta dinamizatzea ahalbidetuko duena.

Proiektuaren hurrengo urratsak

Proposamena Bozeramaileen Batzordearen aurrean aurkeztu da eta, hortik aurrera, proposamenak eta aldaketak aurkezteko epea zabaltzen da. Ondoren, Urbanismo Aholku Kontseilura aurkeztu beharko litzateke, ostean Udal Korporazioaren Plenoan aurkezteko.



- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com

2019-2020 zikloko Euskaraldia antolatzekeko urrats berriak

Denborak aurrera egin ahala, 2019-2020 zikloko Euskaraldiarekin loturiko xehetasun gehiago ezagutzen dira. Bigarren edizio honetan bi urteko zikloa izango du hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko xedea duen ekimenak. 2020ko udazkenean egingo den bigarren ariketa sozialak bi ardatz izango ditu: herritarren arteko hizkuntza ohituretan eragitea eta entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera hazteko neurriak bultzatzea. Bigarren edizioa 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4era egingo da.



Xehetasunak fintzen ari baldin badira ere, bigarren Euskaraldiak bi ardatz izango dituela aurreratu dute sustatzaileek: batetik, lehen edizioan protagonista izan diren ahobizi eta belarriprest rolen bitartez Euskal Herri osoko herritarrei beraien harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzen jarraitzeko deia egingo zaie; bestetik, bigarren edizioa berrikuntza modura, era guztietako entitateei beraien funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko urrats zehatzak ematea bultzatuko du Euskaraldia. Erakunde publiko, enpresa, komertzio, elkarte eta gizarte eragileak izango dira bigarren ardatz honetan konpromiso zehatzak hartu eta gauzatuko dituzten entitateak. Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak azaldu duenez, "Euskaraldiaren bigarren edizioan herritarrek, norbanako parte hartzeaz gainera, ariketan talde moduan parte-hartzeko aukera izango dute ere".

Herritarrei eta entitateei deia

Hizkuntza ohiturak eta inertiak aldatzea epe luzeko lana dela jakitun, berriro ere ahobizi edo belarriprest modura jokatzeko gonbite bateratua egingo zaie herritarrei. Jakina denez, Euskaraldiaren lehen edizioa ariketa masiboa izan da eta bigarrenaren herritarrei euskararentzako harreman eta eremu berriak irabazten jarraitzeko deia egingo zaie.

Horretarako, ahobizi eta belarriprest rolek izango dute berriro protagonismoa eta ikurren bidez identifikatzea izango da ariketaren elementu garrantzitsuetako bat. Erabilitako ikurrek (txapak izan ziren ariketaren ikur nagusia) segida izango dute.

Entitateek, berriz, funtzio aktiboagoa izango dute Euskaraldiaren bigarren edizioan. Aurrekoan 200 entitatetik gora izan ziren ekimenaren sustatzaile (milaka, herrietako elkarte, erakunde eta eragileak kontuan hartuta). 2020an, aldiz, urrats bat aurrera egin eta entitateen funt-

zionamenduan euskararen erabilera eta praktikak babesteko konpromiso zehatzak hartzeko eskaria egingo zaie parte hartzen duten entitateei. Urrats hauek eskatuko duten aurre-lana aintzat hartuta, 2019 urtean bertan hasiko dira entitateak neurriak hartzen eta herrietako batzordeak lanean. Bigarren edizio honetan Ariguneak izango dira Euskaraldiaren nobedade nagusia eta Manuel Moreno Topaguneko ordezkariak adierazi duenez, "Ariguneeen helburu nagusia herritarrak erdiguneari jartzea izango da".

"Euskaraldiaren bigarren edizioan herritarrek, norbanako parte hartzeaz gainera, ariketan talde moduan parte-hartzeko aukera izango dute ere"

Jasone Mendizabal, Topaguneko zuzendaria

Herri-batzordeak

Lehen edizioa bukatuta, bigarrenari ekitea tokatzen da. 2019-2020 edizioa martxan jartzeko unea da eta, berriz ere, herri batzordeei dagokie lekukoa hartzea. Horretarako, irekita dago jada herri batzordeek izena emateko epea. Iaz Euskaraldian egon ziren herri batzordeek berretsi beharko dute partehartzea webgunean dagoen galdetegia beteta; eta iaz antolatzaile moduan izena eman ez zuten herriek izango dute aurten Euskaraldian ego-

teko aukera, noski. Biek ala biek izena eman beharko dute Euskaraldiko webgunean, herrien atalean.

Baina, izena ematen hasi aurretik batzordeak partehartzea berretsi beharko du. Hau da, iaz parte hartu zuten batzordeak berriz bildu beharko dute (udaleko ordezkariak, herritarrak, herriko eragileak...) 2019-2020ko Euskaraldian parte hartu nahi duten edo ez erabakitzeko.

"Ariguneeen helburu nagusia herritarrak erdiguneari jartzea izango da"

Manuel Moreno, Topaguneko ordezkaria

Lehen edizioa emaitzak

Euskaraldiaren lehen edizioak "nabarmen astindu zituen" bertan parte hartu zuten hizkuntza jokaerak ariketaren 11 egunetan eta, era berean, hiru hilabete beranduago aldaketa horiei "proporzio altuan eutsi egin" zitzaion. Horixe da Euskaraldia: 11 Egun Euskaraz. Soziolinguistika Klusterrak Euskaraldiaren webgunean ariketaren lehen edizioa emaitzen txosten zabala argitaratu du. Azterlana burutzeko Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa eta Gipuzkoako Foru Aldundia lankidetzan aritu dira, Klusterrarekin eta Euskaltzaleen Topagunearekin batera.

Neumáticos
txepetxa

NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99

Antzinako Egipto izango da FICAB jaialdiaren XIX. edizioko abiapuntua

Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoaren jaialdia azaroaren 18tik 23era egingo da Irunen. Antzinako Egipto protagonista da jaialdiaren XIX. edizioa iragartzen duen kartelean eta, aurreko urteetako irizpideekin jarraituz, arkeologia eta bere teknikak, ondare arkeologikoa eta horren kontserbazioarekin loturiko lanak erakutsiko dira jaialdiaren barnean.

Guztira, 53 zinta aurkeztu dira 2019 urteko FICAB jaialdira eta Oiasso Museoak zinemaldiko emanaldietan erakutsiko diren 24 lan aukeratu ditu. Jaialdian lehiatuko diren zinten artean Espainia zein Frantzia sortutako produkzioak nagusi diren arren, sail ofizialean, Libano, Venezuela eta Eslovakiako ikus-entzunezko proiektuekin lehiatuko dira. Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariaren hitzetan, "historia, arkeologia eta zinemaren bitartez mundu osoan zehar bidaiatzeko aukera eskaintzen du jaialdiak hiritik mugitu gabe".

Aurreko edizioetako funtzionamenduari eutsiz, 3 erakustaldietan banatuko dira FICAB jaialdiko lanak. Goizeko erakustaldia Hezkuntza sailean lehiatzen diren filmentzako tartea izango da eta eskualdeko ikastetxeetan egingo da film horien proiektzioa. Arratsaldeko erakustaldiak, berriz, 17:00 eta 19:00etan izango dira eta CBA Udal Liburutegia eta Amaia Kultur Zentroan izango dira emanaldi horien egoitzak. Hain zuzen ere, 19:00etako saioan erakutsi diren filmen bitartez Tutankhamonen tunbaren inguruko azken

aurkikuntzak, Nazcako lerroak, Namibian aurkitutako XV. mendeko ontzi-hondarra edo Etiopian topatutako megalito faliko misteriotsuak deskubritu ahalko dira.

Hortaz gain, FICAB zinemaldiko hiriburuko egoitza Donostiako Aquariumean kokatuko da beste urte batez eta itsasoa eta nabigazioarekin loturiko 3 film erakutsiko dira bertan. Gainera, Orona Fundazioa, jaialdiko kolaboratzaile eta zinemako egoitza izateaz gainera, ikuspegi pedagogiko onena erakusten duen filmarentzako diru-sariaren zenbateko handitu du aurten. Juncal Eizaguirre kultura ordezkaria FICAB 20. urteurrenetik geroz eta hurbilago dagoela gogoratu du: "mugak zeharkatzen dituen eskaintza kultural zabaleko jaialdia da".

Karteleko irudia

FICAB jaialdiaren XIX. edizioa iragartzen duen kartelean Tutankhamonen hil-mozorroa elementu nagusia da, hain zuzen ere, arte egiptiarraren arte 1925 urtean Howard Carter-ek egidako aurkikuntzaren ostean arte egipziarrek irudi garrantzitsuenetako bat dena. Jaialdiaren irekiera ekitaldia azaroaren 18an, astelehenean, 19:00etan egingo da Amaia Kultur Zentroan. Irudian Tutankhamon Amaia Kultur Zentroko atze-ohialek ataraten dela ikusten da, antzokiaren besaulki patioa ikusteko. Diseinu honen bitartez azaroaren 18ko 19:00etan egingo de hasiera ekitaldiaren ostean emango diren lehen filmei erreferentzia egitea bitlatzen da.

Kategoriak eta sariak

Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoaren XIX. edizioan 4 kategoria be-

"Historia, arkeologia eta zinemaren bitartez mundu osoan zehar bidaiatzeko aukera eskaintzen du jaialdiak hiritik mugitu gabe"

Juncal Eizaguirre, Kultura ordezkaria



reiziko dira jaialdiko sariak banatzerako orduna. Lehen, FICAB Zinemaldiko Sari Nagusia izango da eta zinta irabazleak 2.000 diru-saria jasoko du. Ikusleen Sari Berezi bezala hautatzen den lanak 1.000 eurotako diru-saria eramango du. Orona Fundazioak Hezkuntza saileko saria banatzea arduratuko da, horretarako, 750 eurotako diru-saria bideratuko duelarik. Azkenik, zabalpen zientifikorako Arkeolan saria banatuko da ere, nahiz eta sari ekonomikorik gabeko errekonozimendua izango dena.

Jaialdiko epamahaia ikus-entzunezko eta antropologiaren munduko adituak dira eta epaia sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko du, zinemaldiari amaiera emateko antolatutako ekitaldian, hain zuzen ere, azaroaren 23ko arratsaldeko 18:30etatik aurrera Amaia Kultur Zentroan. Gainera, Oiasso Museoak aurreko urtean FICAB jaialdiko epaimahai izandako eta duela gutxi zendutako Juan Miguel Gutierrez omenduko duela aurreratu du.



Coach-a eta era zoriontsuan produktiboa izateko prozesuetan akonpainamendua

- Coaching pertsonalizatua: ahalduntzea, determinazioa eta gogobetetasuna.
Zure ametsak betetzeko baimena emaitza zure buruari!
- Talde coaching-a: Kohesioa, zorientasuna eta produktibitatea.
Egin ezazu zure taldea zoriontsu era produktibo batean.
- Tailerrak eta konferentziak: garapena eta motibazioa lortzeko.



info@anaeguiababal.es
www.anaeguiababal.es

Oporrak Bakean proiektuare berrien bila da

Tadamun elkarte Bidasoa eskualdeko GKE bat da Saharako errefuxiatuak laguntzeko asmoarekin sortu zena. Elkarrekin proiektu ugari aurrera eramaten dituen arren, Oporrak Bakean proiektua indartzeko beharra ikusten du. Oporrak Bakean saharako haurrei udara abegi-familien bitartez eskualdeko etxeetan igarotzea ahalbidetzen dien proiektua da eta azken urteetan beherakada nabaria jasan du.

Oporrak Bakean proiektuaren bitartez udako bi hilabeteetan zehar haur sahararaiak Bidasoa eskualdeko abegi-familien etxeetan jasotzea bilatzen da. Honela, haur hauen oinarritzko beharrak asetzen dira, udaran basamortuko klima gogor eta bero jasanezinetik ihes egiteko aukera ematen zaien bitartean. Trini Fernandezek Tadamun elkarteko kideak azaldu duenez, "udan kanpamenduak infernuan bihurtzen dira, izan ere, 56º izatera iritsi daitezke".

"Abegi-familiek egin beharreko esfortzu bakarra mahaian plater bat gehiago jartzea da"

Juncal Bauza, Oporrak Bakean proiektuko parte-hartzailea

Abegi-familien beharra

Ibilbide luzeko proiektua da Oporrak Bakean, urte luzeetan zehar Saharako haurrek pairatzen duten errealitate gogorra atzean uzteko aukera eskaini duena. Lehen urteetan zehar 14 neska-mutilek igarotzen zuten uda eskualdeko abegi-fa-



Argazkia: Estudio Gover

mileen etxeetan. Azken urteetan, aldiz, abegi-familien kopurua oso era nabarmenean murriztu da, izan ere, azken udaran Hondarribia eta Irun artean 4 haur soilik ekartzeko aukera egon zen. Era berean, abegi-familia gehiago zeuden garaietan adin tarte zabalagoko haurrak ekartzeko aukera zegoen eta 8 eta 12 urteko sahararaiak parte hartzen zuten programa honetan. Orain, ordea, soilik 10 eta 12 urte arteko neska-mutilek ekartzeko aukera dago.

Oporrak Bakean proiektuan parte hartzen duten familiek urte bateko konpromezua hartzen dute, nahiz eta hurrengo urteetan abegi-familia gisa parte hartzen jarraitzeko aukera zabalik egon. Tadamun elkarrekin, Irungo Udalarekin, Gipuzkoako Foru

Aldundiarekin eta Euskadiko Saharako Delegazioarekin dauzkan akordioaren bitartez, haurren hegazkin-txartelen kostuak guztiz kubritzen dira. Hortaz gain, haurrak tratamendu edo osasun-zerbitzu berezirik jaso beharko balu, elkarrekin gastu guztiak kubrituko lituzke ere, baina, Trini Fernandezek azaldu duenez kasu puntualak dira horiek. Hortik aurrera, Juncal Bauzaren hitzetan "abegi-familiek egin beharreko esfortu bakarra mahaian plater bat gehiago jartzea da".

Oinarritzko baldintzak

Tadamun elkarteko kideek azaltzen dutenez, abegi-familia bihurtu ahal izateko oinarritzko baldintza gutxi daude eta garrantzitsuenak udara saharako haurrei udara partekatze gogoia izatea dela

azpimarratzen du Juncal Bauzak. Kasu gehienetan familiekin lehen kontaktua telefono bidez egiten da, ondoren, bilera baten proiektuaren xehetasunak azaldu eta, familiek proiektuaren barruan jarraitzeko asmoa erakusten badute, prozesua abiatzeko dokumentu guztiak izenpetzen dira.

Abegi-familia bakoitzaren baldintzak eta egoera ezberdinak izan arren, Tadamun elkartetik proiektua parte hartzeko bere burua aurkezten duten familia guztiak laguntzeko ahalegina egiten da. Haur gehiago etortzen ziren garaian, haurrentzako ekintza gehiago antolatzen ziren goizean zehar lana edo bestelako konpromezuak zeuzkaten familiak laguntzeko.



Fernando Vergara
argazkilaria

Letxumorro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



ekin jarraitzeko abegi-familia bil Tadamun elkarte



Harea ekaitza Oporrak Bakean proiektuan parte hartzen duen haur baten kanpamenduan.



Tadamun elkartearen lana zabalten laguntzeko ekintzak.

Kontakturako aukera zabalak

Oporrak Bakean proiektuaren inguruko zalantzak edo interesa duen edonor elkar-teko kideekin harremanetan jarri daiteke. Horretarako, Facebook edo Instagram bezalako sare sozialetara batu da elkarte duela gutxi, interesatuen esku informazio erabilgarri eta kontakturako zenbaki zein helbideak jartzeko. Gainera, Saharauen egoera bisibilizatzeko ekintza ugari antolatzen ditu urtean zehar elkarteak eta ekintza guzti horietan jendea haiengana hurbiltzera gonbidatzen dute, kultura Saharuiaz zipristintzeko, izan ere, zeinek daki non sortu daitekeen etorkizuneko abegi-familia batekin lehen harremana.

Zalantzen itsaso zabala

Oporrak Bakean proiektuan murgiltzeko erabakia hartzeko oztopo nagusia zalantzak eta zihurgabetasunak izan ohi dira. Tadamun elkarteak kideek haurren egokitzapen gaitasun handia azpimarratzen dute. Hain zuzen ere, lehen asteetan egokitzapen prozesutik igarotzea ezinbestekoa da, talka kulturala eta bidai hori haurrak haien herrialdetik ateratzen diren lehen aldia izango dela kontutan hartua. "Erabaki zailena zalantzak baztertu eta pausua emateko ausardia biltzea da, gaineratu du Trini Fernandez elkar-teko kideak. Hortaz gain, hizkuntzari dagokionez, haur saharauei udara bat

nahikoa zaie haien abegi-etxean hitz egiten den hizkuntza ikasi eta hitz egiteko gaitzateko. Trini Fernandezek adierazi du, "harrigarria da haurrek euskara zein gaztelera bereganatzeko dute ahalmena".

Trini Fernandez Tadamun elkarteak kidearen hitzetan, "haurrak etxean anai-arreba berri baten moduan sartu ohi dira". Udara osoa igaro ostean, agur esateko unea izan ohi da prozesuko momenturik gogorrena. Hala ere, teknologiaren aurrerapausuek urtean zehar haurrekin kontakua mantentzea ahalbidetzen dute. Juncal Bauzak azaldu du, harrigarria izan arren, tarteka telefonoa edo wifi-a erabiltzeko aukerak dauzkaten bitartean, bestelako oinarritzko beharrak asetzea ezinezkoa zaiela.

Aspaldiko gaztazkaren ondorioa

Oporrak Bakean proiektuaren barnean La Hamada eremuan kokatutako Tinduf-eko errefuxiatu kanpamenduetako haurrekin lan egiten dute, hain zuzen ere desertuko eremu bortitzenean kokatuta dago. Iraganen Espainiako beste probintzia bat zen Sahara, baina, 1975 urteko botere hutsunea aprobetxatuz Marruekoek Martxa Berdea abiatu eta Sahara inbaditu zuen. Ondorioz, okupaziotik ihes egiteko haur eta emakumeak desertuan murgildu ziren fisikoki Argelien kokatutako eremu

eta baldintza minimoetan bizirauteko aukera ematen dien zonalde honetara iritsi arte.

Bestelako proiektuetarako tartea

Oporrak Bakean proiektuaz gainera, Tadamun elkarteak Saharako errefuxiatuen bizi-baldintzak hobetzeko bestelako proiektuak aurrera eramaten ditu. Trini Fernandez boluntarioak azaldu duenez, "Karabana Solidarioa egutegian hurbilen dugun hurrengo proiektua da. Karaban Solidarioak errefuxiatu kanpamenduetako biztanleei oinarritzko elikagaiak bidaltzen dizkie Euskal Herritik hasita eta estatu osoko biztanleek egindako ekarpenei esker. Juncal Bauzak adierazi duenez, "Tadamun elkarteak parte hartzen duen proiektuaren artean gehien harritzen zaituena da jendearen eskuzabaltasuna agerian uzten baitu".

Karabana Solidarioak antolatutako bilketetan arrosa, lekaleak, iraupen luzeko kontserbak, emakumeentzako oinarritzko higiene produktuak, ... Hala ere, haragia, arraina, fruta edo barazkiak bezelako beste oinarritzko produktuak bidaltzea ezinezkoa da bidaiaren iraupen luzea dela eta, beraz, saharuiak elikagai osagarri horiek eskuratzeko moldatu behar dira. Hortaz gain, Tadamun GKEak Mártir El Sheriff egoitza-zentroaren kudeaketan la-

"Erabaki zailena zalantzak baztertu eta pausua emateko ausardia biltzea da"

Trini Fernandez, Tadamun elkarteak kidea

guntzeko beste proiektu bat du ere. Zentro honetan desertuan Marruekoek jarritako pertsonen kontrako minen leherketetan zaurituak izan diren pertsonen arreta eskaintzen zaie osasun zerbitzuen zainketak jasotzeko aukera izan dezaten. Tadamun elkarteak honelako zentroetara elikagaiak eramateko ardura hartzen du, ahal den heinean instalakuntzetan hobekuntzak egitearekin batera.

Errealitate gordin eta konplexu honen barnean, Tadamun elkarteak aurrera eramandako Oporrak Bakean bezalako proiektuek Saharako haurren etorkizuna guztiz baldintzatu eta lagundu dezakete. Honela, ahalegin txikien bitartez herri oso baten etorkizuna lagundu daiteke eta.



Egun batez Behobia eta Donostia

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, azaroaren 10ean Behobia Donostia lasterketaren 55. edizioa egin zen. Izena emandako 33.341 pertsonetatik 27.070 korrikari ausartu ziren auzo irundarra eta hiriburua banatzen dituzten 21 kilometroak zeharkatzera. Emakumezkoen parte hartzean errekor berria ezarri zen %25,35-eko datua lortu ostean.

Probak 100 urte bete ditu 2019 urte honetan, historian probaren antolaketan eten ezberdinak izan ondoren. Gizonezkoetan, Chakib Lachgar izan zen Bulevardeko helmuga zapaltzen lehena 1:01:00-eko denbora egin ostean, 4 segundotara Iraitz Arrospide eta hirugarren tokian 13 segundotako aldearekin Ivan Fernandez sartu zirelarik. Emakumezkoetan Gema Barrachinak urrezko domina bere egin zuen 1:11:38-ko denbora lortu ostean, bigarren tokian Diana Martin 14 segundotara eta hirugarrenean Gisela Carrion 23 segundoko aldearekin utzi ostean. Roller kategoriak Aitor Vacas eta Nere Carrera izan dira.

Esperientzia pertsonalena

Iker Velasco kirolariak 55. Behobia-Donostia lasterketako bizi-penak kontatu ditu bere blog pertsonalean. Bere 15. Behobia-Donostia lasterketa izan da eta marka on bat lortzeko helburuarekin hilabete lehenago Burgoseko maratoian parte hartu duen. Eguraldi txarra alde batera utzita, Arbes Korrika taldearekin elkartu zen lasterketan parte hartzeko. Bigarren mutilen taldean irteera atzean utzi ostean, lehen kilometroetan eroso korrika egiteko zailtasunak izan zituen jende kopuru handiarengatik. Hala ere, hirian zehar egindako lehen kilometroak bereziak izan ziren senide eta lagunak agurtuz.

Gaintxurizketako erronkari sasoi onean aurre egin ondoren, Errenteriara iritsi eta zapatilaren lokarria askatu arren, helmugara arte gelditu gabe korrika jarraitzeko erabakia hartu zuen Iker Velascok. Ezustekoari aurre egin eta lasterketako azken 5 kilometroetan dena eman zuen. Azkenik, helmugara 1:13:27-ko denborarekin iritsi eta lasterketan inoizko markarik onena lortu zuen.

Lasterketaren azoka

Azaroaren 8 eta 9an Ficoban Behobia-Donostia lasterketaren azokaren XIII. edizioa antolatu zen. Hirian antolatzen den lasterketaren bigarren azoka izan da, joan den urtean azokaren antolaketak Donostiatik Irunera lekualdatu ostean. Azokan lasterketako dortsala eskuratzeaz gainera, erakusketa, saltokiak, hitzaldiak eta bestelako ekintzetan parte hartzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Lasterketatik haratago

Azokak eta lasterketak berak eskualdera ekarritako jendea aprobetxatuz, hainbat ekintza antolatu ziren azaroaren 9ko larunbaterako. Hala nola, Txorimaloak soinu taldearen trikitixa eta batukadak, Ondare elkartearen erraldoi eta buruhandiak, Bizinema Bang Bang-en emanaldia eta Deabru Beltzen "Les Tambours de Feu" ikuskizuna. Eguraldi txarraren ondorioz kaleko ikuskizunak bertan behera gelditu ziren, baina, bisitariek "Pintxotan Irunen barrena!" ekimenaz eta hiriko dendentako eta Oiasso Museoak lasterketaren harira eskaintako deskontu bereziez gozatzeko aukera izan zuten.

Hauteskundearen eragina

Hauteskunde Orokorrak Behobia-Donostiaren egun berean egingo zirela jakin zenetik Irun zein Donostiako herritarren boto eskubidea bermatzeko plana martxan jarri zen. Honela, Irungo Hizkuntza Eskolan, Luis Mariano Gizarte Zentroa, Pio Baroja institutuan eta Elatzeta ikastetxean bozkatu behar zuten hiritarren pasabidea errazteko "bypass" izeneko igarobideak prestatu ziren.



Iker Velasco, bigarrena eskubitik hasita.

Paralimpikoa hurbiltzen dituen lasterketa



Padura-pasaiaren iragana, oraina eta etorkizuna

Josu Narbarte Hernandez (Irun, 1992) arkeologoa da eta Euskal Herriko landa-paisaien bilakaerari buruz egin du bere tesia. Laborantzak, abeltzaintzak eta basogintzak ingurugiroan duten eragina ikertu du, besteak beste iturri dokumentalak, indusketa arkeologikoak, toponimia, ahozko memoria eta lur-laginen analisi fisiko-kimikoak uztartuz. 2020ra begira, Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondareko Zentroan proiektu bat aurkeztu du, euskal kostako padura-paisaia kulturalen ikerketa eta balorizazioa jorrazteko.

Climate Central erakundeak argitaratutako mapa batek hautsak harrotu ditu azken asteetan, klimaren aldaketak 2050. urterako munduko kostalde desberdinetan eragingo litzuzkeen ondorio larrien harira. Euskal Herrian, uholde-arriskuak estuarioetan areagotuko liriateke batez ere; Bidasoa Beherean, adibidez, hainbat guneri eragingo lieke, tartean Hendaiaiko Hondartza auzoari, Hondarribiko aireportu inguruari, Jaitzubia ibar osoari zein Irungo hainbat auzori (Santiago, Dunboa, Mosku, Eguzkitza, Arbes, Altzukaitz...). Esan gabe doa, halako inguru urbanizatu eta industrializatu batean, itsasoaren maila igotzeak zer kalte ekarriko lukeen ingurumenaren, ekonomiaren zein gizarte egituraren aldetik.

Haatik, klimarena bezalako auzi konplexuei heltzeko orduan komenigarria izaten da ikuspegia apur bat zabaltzea, egoera honetara ekarri gaituzten arrazoiak ulertu ahal izateko. Izan ere, orain arriskuan daudenak ez dira zeinahi inguru, berriki arte paduraz estalita egon diren parajeak baizik. Irungo kasua oso nabarmena da; herria hezeguneen ertzean garatu zen jatorrian, egun Junkal elizaren eta San Joan plazaren artean gelditzen den esparruan, kokagune garai batean beraz. Haren aurrean, Xantaleneko ermitatik Azken Porturaino doan eremu zabala urpean gelditzen zen itsasgoran, egun Plaiaundiko parke naturalean topa dezagunaren antzeko paisaia eratuz. Bertan, mende luze ez zen egon ez herrigunerik, ez baserririk, ezta biderik ere.

Lau mendeko prozesu bat

Erdi Aroaz geroztik, garaiko agiriek erakusten dutenez, padura hauek herri-lurgisa ustiatzen ziren, arrantza edo espartzua egiteko ihi-bilketa bezalako jardura estentsiboetarako. Aldaketa XVII. mendean etorri zen. Garai hartan, Europako hainbat herrialdeetan padurak lehertzeko eta laborantza-lur berriak irabazteko joera gailendu zen: adibiderik argiena Herbehereetako polder famatuak dira, baina Frantziako nahiz Ingalaterrako hezegune zabalak ere egokitu ziren. Eredu berari jarraiki, Irungo udala padurak ixteko eta lehertzeko baimenak ematen hasi zen, bertan soroak eta baratzeak eraikitzeke xedez.

Garaiko agiriei esker, xehetasunez ezagutzen dugu padurak labore-lur bilakatzeko jarraitzen zen sistema. Lehen urratsa sail jakin baten perimetroa lezoi izenez ezagutzen diren hesi edo dikez ixtea zen, lohia finkatu eta uren mugimenduei eusteko; gero kanalak eta langak irekitzen ziren, dreinaia errazteko. Era honetan mugatutako irlak jatorrizko padura baino askoz egonkorragoak ziren, ura bideratuz

higadura murrizteko aukera ematen baitzuten. Elementu hauetako asko oraindik oso presente daude Bidasoa ertzeko paisaian, nahiz eta gehien-gehienak oso higituta ageri diren.

Lehen baimena 1652an eman zen Altzukaitz izeneko parajea lehertzeko, egun Palmera-Montero urbanizazioa dagoen inguruan. Lanak 1673an hasi ziren eta, hogeitau urte beranduago, hainbat errenterori sailak eman zizkieten, 15 urtez zereala erein zezaten; trukean, errentarik ordaindu ez baina lurrak egokitu beharko zituzten, suertatutako sailak hesituz eta uraren zirkulazioa ziurtatzeko behar ziren lubakiak eta langak eraikiz.

Aldi berean, zenbait bizilagun ihitokiak ixten eta bertan baratzeak sortzen arituak ziren, Xantalen inguruan adibidez. Egoera erregularizatzeko, 1694an udalak enkantean eman zituen sail horiek. Oraingoan, maizterrei diru-errenta bat eskatu zieten; horrez gain, hesiak mantendu beharko zituzten mareei eusteko, eta lurrari hondarra gehitu beharko zioten haren testura hobetzeko. Gainera, urte horretan onartu zen estuarioko irlak, Santiagourrea, Irukanale eta Galera ere, egonkortzea eta laborantzara bihurtzea. Erabaki hauek gatazka piztu zuten Hondarribiarekin, Erdi Aroan jasotako hiri-gutunaren arabera hari zegokiolako Bidasoa osoaren jurisdikzioa. Ondorioz, hiribilduak irundarrak salatu zituen 1701an, baina horrek ez zuen prozesua geldiarazi; gainera, 1764ko epaiak Iruni eman zion bere lurretan itxitako paduren jurisdikzioa. XVIII. mendean, padurak laborantzara bihurtzeko joera goia jo zuen, estuario guztia hartuz: Jaitzubia, Mendelu, Letxunborro, Plaiaundi, Kostorbe, Osinbiribil, Antxotxipi eta abar luze bat.

Ondorioak padura-ekosisteman

Prozesu honen ondorioz, padurari espazio zabal bat kendu zitzaion, ekosistema naturalak berezkoak zituen autoerregulazio-baliabideak ezabatuz eta, horrenbestez, une jakin batean eman zitezkeen uholdeen aurkako defentsarik gabe. Gainera, XX. mendeko hedapen industrialaren eta urbanoaren parte handi bat artifizializatutako padura hauen gainean eman zen, estuarioko oreka ekologikoa are kinka larriagoan utzirik. Hauexek dira orain klimaren aldaketaren ondorioz uholde-arriskuak mehatxatuen ageri diren inguruneak.

Egia da azken hamarkadetan urratsak eman direla prozesu hau gelditu eta padura naturala berreskuratzeko ekimenak. Horren adibide da, lehenik eta behin, Plaiaundiko baratzeak desegin eta bertako parke naturala izendatu izana.



IRUDIA: Irungo paduren bilakaera. Goian: XVII. mendea. Erdian: 1945-1946. Behean: 2018. Nabarmen ikusten da padura naturalen artifizializazioa, laborantza-guneak sortzeko lehenik eta hedapen urbanoa eta industrialia gauzatzeko gero.

2002an, Bidasoako estuarioko 128 hektarea Nazioarteko Garrantzidun Hezeguneen Zerrendan sartu ziren; horrez gain, Eusko Jaurlaritzak Plaiaundi, Jaitzubia eta Bidasoako irlak Babes Bereziko Eremu gisa izendatu zituen, Natura 2000 sarearen baitan, 2011ean. Hala ere, babes-figura horiek ez dute estuario osoa kontutan hartzen, alde txiki bat baizik;

ondorioz, ez dago batere argi zer eragin izan lezakeen padura-inguru hauen berreskurapenak inguruko lurrik guztia urbanizatuta segitzen duten testuinguru batean. Climate Central erakundeak plazaratutako agiriak elementu bat gehitzen dio hausnarketari, etorkizunean klima-aldaketaren ondorioak gutxitzeko bidean.

Lekaenea

Urtero bezala "Gure geroa, Gure oraina" proiektua dela eta Lekaeneako 5 urtekook Gibeletako aiton-amonen bisita izan dugu. Aurten lagundu digute gabonetako apaingarnak egiten. Zein ondo pasa dugun!

DENON ARTEAN GELA
PRESTATU DUGU

POZIK EGON GARA
GABONETAKO ZUHAITZA
EGITEN
AITON-AMONEREN

OSO POLITAK GERATU
DIRA ZUHAITZAK!

5 URTEKO GELA

Denborapasak

Zazpi hitz: Mendiak

I	R	A	I	T	R	R	E	U	L	A	I	H
H	R	U	R	N	E	I	K	X	E	O	A	N
U	E	P	B	D	R	U	A	I	B	R	N	S
H	J	R	N	A	N	S	R	A	I	B	E	L
A	A	I	N	G	D	R	B	H	K	A	E	K
N	I	I	A	I	O	A	O	L	Z	U	L	A
E	U	L	R	K	O	I	N	E	I	A	A	E
A	C	R	Z	S	E	A	A	P	A	R	D	O
I	R	I	A	D	I	A	K	R	J	A	O	K
I	A	R	R	L	M	A	B	R	Q	L	E	A
E	A	N	B	O	T	O	C	E	R	A	E	N
R	E	E	N	M	E	Z	K	Z	N	R	O	R
A	I	A	K	O	H	A	R	R	I	A	A	A

	7		5				6
6	5	4	7			3	8
		2		6			
	1	3				4	7
4	6	9	8			2	5
		5		8	6		
2		6		4			
			3			7	2

Jaizkibel, Larun, Aizkorri, Aralar,
Aiako-Harria, Anboto, Hernio

Euskaraz, Irunen barrena

Kontua

Joantziren itxe batera eta bizi zen andre bat muttiko batekiñ.

Esantziyoten:

–Zein bizi da emen?

–Ni (esantzuen andriak).

Eta galdetu zioten:

–Nola duzu izena?

Eta muttikoaren izena? (galdetu ziyoten).

Eta joantzen andria baratzera eta egintuzen uju:

Esantziyoten:

–Zertarako joantzara orrera?

–A! Semian izena akordatzeko!

Irungo Kateako S.R.A. andereari jaso (1959-VI-14). Amari ikasi zion. (El Bidasoa, 1959-XI-14)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Eguzkitza DBH2

URREZKO ARRAUTZAK ERRUTEN ZITUEN ANTZARA

Bazen behin baserri batean famili pobre bat. Egun batean zituzten antzaretatik batek urrezko arrautza bat jarri zuen. Egunak igaro ondoren egunero jartzen zuen urrezko arrautza.

Etxeko gizonak eta andreak geroz eta aberatsagoak ziren, baina geroz eta urre gehiago nahi zuten. Orduan etxeko andreak urre gehiago edukitzeko ideia eduki zuen.

Antzarari tripa irekiko zioten barruko guztia ateratzeko, baina barruan ezer ez aurkitu eta antzara eta urrerik gabe geratu ziren. Horren ondorioz, berriz, pobre bihurtu ziren.

Dena nahi duenak dena galtzen du.

Asier Etxenagusia. Eguzkitza BHI. 2.A



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Alaia Gaztelumendi, artista:

“Ilustrazioen bitartez marrazkia ideia indartsuekin elkartzea atsegin dut”

Abenduaren 14ra arte Martindozenea Gatelekuko ormetatik zintzilik Alaia Gaztelumendiren, Alaiart, lanak ikusi ahalko dira. Artista oiartuar gazteak ilustrazioen bitartez gutxietsitako mundu osoko emakumeak eta Euskal Herriko zuhaitzetako hostoen bizipenak bildu ditu. Erakusketa asteartetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara eta ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00etara bisitatu daiteke. Gainera, artistak webgunean zein Alaiart izeneko Instagram profilaren bitartez bere sormen-lanak erakusten ditu.



Nola jaso zenuen Gaztelekuan erakusketa egiteko proposamena?

Gaztelekuarekin harremanetan jarri nintzen tarteka bertan erakusketak egiten zirela nekielako. Erakusketa bat egiteko espazio interesgarria zela uste nuen, bertan nire koadroak ipintzeko.

Zer ikus daiteke “Ikusezinak” erakusketan?

Batetik, “Ikusezinak” emakumeen inguruko serie bat da, non munduko emakume ezberdinak silueta bitartez islatzen diren eta barnean haien lurraldeko paisaiak erakusten dituztenak. Honela, emakumeek kulturaren daukaten garrantzia goraipatu nahi izan dut, haien barnean beraien kultura margotuz. Bestetik, 3 koadro handigoz osatutako beste serie bat dago, hostoak zuhaitzetik erori aurreko oroitzapenak islatzen dituenak, honela, Euskal Herriko zuhaitz enblematikoak abiapuntu hartu nituen.

Nola lortu zenuen Ikusezinen seriea sortzeko inspirazioa?

Hemen bizi zen emakume saharaui bat ezagutu nuen, iraganean momentu gogorak bizitakoak. Berak bere herrialdera itzuli nahi zuen, baina, semeen etorkizunarengatik hemen gelditzea erabaki zuen eta nik lehen ilustrazioaren oparia egin nion bere barnean bere herrialdea, kultura eta familia beti eramango dituela erakusteko.

“Emakumeek kulturaren daukaten garrantzia goraipatu nahi izan dut”

Nolako izan da sormen prozesua?

Bartzelonatik itzuli nintzenean silueta eta edukia erlazionatzeko joera honi ekin niola esango nuke. Hasieran, collagearekin probatu nuen arren, baina, trebatzen joan nintzen heinean zuzenean tenperarekin lan egitera aursartu nintzen. Beraz, duela bi urte edo urte bat hasi nintzen ideia hau fintzen.

Erakusketa bat antolatzen duzun lehen aldian izan da?

Ez, erakusketa gehiago izan ditut aurretik. Adibidez, Bartzelonan ikasten egon nintzenean Italian erakusketa egiteko aukera izan nuen eta, hortik aurrera, Bartzelonan, Grosen, Oreretan, Irungo Kabigorriin, Tabakalera edo Egiako pasabidean erakusketak izan ditut, besteak beste.

Ilustrazioak gainera, etorkizunean beste teknikaren batean sakondu nahiko zenuke?

Ilustrazioa asko interesatzen zaidan gaia da, marrazkia ideia indartsu batekin lotzea atsegin dudalako eta, ho-

rretarako, ilustrazioa oso aproposa da mezuak era ulerterrazean transmititzeko.

Zeintzuk izan dira erakusketako lehen ikusleek helarazitako iritziak?

Serie honekin erakusketa gehiago egin ditut aurretik eta feedback-a orokorrean oso ona izan da. Jendeari erakusketa gustatu zaio eta silueta lantzeko modua berezia izan zaie. Hala ere, bisitari bakoitzak ilustrazioen mezua era desberdinean jaso du eta bakoitzak bere esperientzia pertsonalekin lotzeko joera izan da.

Erakusketaz gain, Gaztelekuko gazteekin tailerrean lan egiteko aukera eduki zenuen?

Bai, gazte jende dezente hurbildu zen eta, horrela, erakusketaren gaian gehiago sakontzeko aukera izan genuen. Tailerraren arrakastaren inguruan zalantzak neuzkan eta oso pozik nago gela betetzea lortu genuelako.

Zeintzuk dira etorkizunari begira daukazun helburuak?

Pixkanaka bidea egin nahi dut, zoriotsu egiten nauen bidea delako eta horri eusteko asmoa dut. Etorkizunaz hitz egiterakoan ez dut urrutiegi begiratzea atsegin eta pausoz pauso aurrera egitea nahiago dut. Orain arte egindakoaz harro nago eta etorkizunean proiektu berri gehiago abiatzeko esperantza dut.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meak auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webgunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IGazteren buletina

Enplegu, ikastaro, aisialdi, boluntarioria, beka, ... eskaintzaren berri jaso nahi duzu?

Eman izena iGazteren Buletinean!

Buletin honen bitartez eskaintza guztien berri jasotzeko aukera izango duzu, eskaera epearen inguruko informazioa eta zuzeneko esteken bitartez. Informazio gehiago: www.irun.org/igazte

Zer da Eurodesk?

Eurodesk gazteei informazioa eta orientabidea emateko zerbitzu integrala eskaintzen duen Europa mailako sare bat da:

Europa mailan ikasteko ditugun mugikortasun aukerak ezagutarazten ditugu, gazteei interesatzen zaizkien eduki informatiboak sustatzen ditugu eta gazteek planteatzen dizkiguten kontsulta indibidualei erantzuten diegu.

Hainbat bidetatik ematen ditugu zerbitzu horiek: Gazteriaren Europako Ataria, Eurodesk-en Espainiako webgunea eta Eurodesk-en webgune nagusia.

Harpidetu Eurodesk buletinera!!!
Informazio gehiago: www.irun.org/igazte

2030 ZURE agenda da!

Agenda 2030 Euskadirentzako agenda da, gure lehentasnekin guztiz bat datorrelako: Pertsona guztiak funtsezko zerbitzuak bermatuko dizkien giza garapena eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortuko dituen hazkunde jasangarria.

Gaztea bazra, gai horiek interesatzen bazaizkizu, elkarlanean nondik hasi ez badakizu, ... bat egin jarduerarekin!

Eguna: Azaroak 16, larunbata.

Ordua: Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 18:00etara.

Lekua: Bilboko Euskalduna jauregia.



Azaroko ekintzak Gaztelekuan

- Azaroak 15 eta 16, ostiral eta larunbata: Harry Potterren asteburua ospatuko dugu gaztelekuan. Hortaz, Gaztelekua soilik ekintza honetan izena eman duten pertsonentzako zabalik egongo da (plazak agortu dira).

- Azaroak 21, osteguna: Asexora-T tailerra "nos tratamos bonito" izenarekin.

- Azaroak 22, ostirala: Emakumeen Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira eguneroan gertatzen diren matxismo egoerak islatzen dituzten mikro-antzerkiak arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

- Azaroak 23, larunbata: Kamixeta tailerra indarkeria matxistaren kontrako eguna dela eta.

- Azaroak 27, asteazkena: Kaebnai Zokoa proiektua lantzeko mahai-joko dinamikoa 17:30etatik aurrera.

- Azaroak 28, osteguna: Hama 3D ekintza.

- Azaroak 29, ostirala: "Victima 17 ¿La dejaras morir?" Scape Roomera bisita.

- Azaroak 30, larunbata: Oihan Vegak zuzendutako Irrati didaktikoa.



Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiarart.net
kopiarart@kopiarart.net
943 63 93 01

Azaroak

16

Antzerkia: "Txarriboda"

Zer: Antzerki garaikidean, kontzeptuan eta poetikoan oinarrituta lan egiten duen Hika Teatroa konpainiaren emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 14,30 euro. Langa-betu, 14 urtetik beherako eta Gazte Txartelaren onuradunentzako 9,20 euro.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Luis Marianoko Turismo Bulegoan edo emanaldiaren egunean bertan antzokiko leihatilan.

17

Kontzertua: Irun Hiria Musika Banda

Zer: Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua Santa Zezilia eguna dela eta.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 12:30etan.

Sarrera: Librea.

20

Kontu Kontari Haurrentzat: Bazen behin

Zer: Haurrei zuzendutako irakurketa saioa zuzenduko du Raquel Imazek.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordua: 17:30etan.

Sarrera: Librea.



Denbora-pasen emaitzak

I	R	A	I	R	R	E	U	A	I	H		
I	R	R	N	E	I	K	X	E	O	A	N	
U	E	P	B	O	R	U	A	L	B	E	L	
H	I	R	N	A	N	E	R	A	B	E	L	
A	A	I	N	O	D	R	B	H	K	A	E	S
E	I	A	I	O	A	G	L	E	U	L	A	
E	U	L	S	C	O	I	N	E	P	A	E	
A	C	E	L	E	A	P	A	P	A	D	O	
I	R	O	D	I	A	K	R	I	A	D	O	
I	A	R	S	M	A	B	R	Q	I	Z	A	
E	A	N	S	O	T	C	E	R	A	Z	N	
R	E	C	N	H	E	Z	K	Z	N	O	S	
A	E	A	R	O	A	H	R	I	A	A	A	

3	7	1	5	2	8	9	4	6
6	5	4	7	1	9	3	2	8
0	8	2	4	6	3	5	1	7
0	1	3	6	5	2	4	7	9
5	2	7	9	3	4	6	8	1
4	9	9	8	7	1	2	3	5
7	3	5	2	8	6	1	9	4
2	9	6	1	4	7	0	5	3
1	4	8	3	9	5	7	6	2

23

Osasun Historiaren Jardunaldiak

Zer: Osasun historiaren jardunaldiak, borroka-eremuen ondorioak hobetzeko asmoarekin.

Non: Ficoban.

Ordutegia: 9:30etatik 21:00etara.

Sarrera: Jardunaldien webgunean aurretik izena emanda eskuratu ahal da.

Aparkalekua doan: 8:00etatik 22:00etara.

24

Nagore Laffage Parkearen inaugurazioa

Zer: Juan Vollmer eremuan kokatutako plaza berriaren inaugurazioa.

Non: Juan Vollmer plazako Nagore Laffage parkean.

Ordutegia: Arratsaldeko 17:00etatik aurrera ekintza ezberdinak.

Ekintzak: Haurrentzako jarduerak, Ondare Kultur Elkarte, txistulariak, Danza Uikan, Danza Collectif Eflirkoa dantza konpainia.

29

Hitzaldia: Toti Martinez de Lezea

Zer: "Nire klasiko kutunak eta beste liburuak" hitzaldi zikloaren barruan Iliadaren inguruko hitzaldia eskainiko du idazleak.

Non: Oiasso Erromatar Museoa.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea, lekuak bete arte.

30 arte

Komiki erakusketa: "Ajuar funerario. El comic"

Zer: Beñat Olea ilustratzailea eta Imanol Ortiz gidoigilearen lana ikusi ahal da bertan.

Non: CBA Udal Liburutegia.

Ordutegia: Astelehene-tik ostiralera 9:00etatik 20:00etara. Larunbate-tan 9:00etatik 13:00etara.

Sarrera: Doakoa.



ezagutu
gure lanak
kode hau
eskaneatuz

2020an ezkonduko zara?

ESTUDIO
GO
VER™
FOTOGRAFIA

Ezkontza argazkilariak

Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com